

ICIBILLET

Paroles de chanson

03/05/2026

Siesta

Par Sagarroi

Album : Baleike

ICIBILLET.COM

Oteitzak irudi bat ilzun garaian
Harri zuen jatetxe bateko zelaian
Jatetxe hartakoei esker eman nahian
Maiz doartzen baitzuen bazkaldu tamahian
Siesta deitu zion askok gaez sarri
Argi faltan ez zuten irudian berri
Jorgek esaten zuen logikazta larri
Siestari argirikan ezin zaio jarri
Jorge hil bazen hil zen betetik gutxera
Enpresari talde bat joazen jatetxera
Euskaldun ta turkiar dirutan batzera
Norbaitek esan zuen: La siesta hortxe da
Siesta ikusi nahita sortu zen disputa
Ikusmena zegoen guztiz murriztuta
Ikus dezaketela zeuden sinistuta
Auto bat turbiduta, argiak piztuta
Autoaren argiak luzatu heinean
Ikusleek nola ardo zirrara soinean
Bikote bat ari zen jo eta ekinean
Arte-lan bat eginez, bestean gainean
Euskaldun txorda edo turkiar pasio
Oteitzak esan zuen hortako desio
Siestari erakarmen handia dario
Nork esan du arteak ez duela balio